

Tigreei buruzko artikulua bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak.

Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

0 adibidea da. Esaldi bat sobera dago.

— I. testua —

Orroa isil ez dadin

Joan den mende hasieratik gaur arte, mende bakar batean alegia, munduan bizi ziren tigreen %97 desagertu dira.(0)..... Bederatzi espezieetatik, gainera, hiru desagertu dira jada: Baliko tigrea, Javakoa eta Kaspiar itsasokoa. Datuok agerian uzten dute animalia kinka larrian dela. Amildegia ertzean. Horregatik, goi-bilera egin dute aste honetan Errusian, hango, Txinako eta Indiako eta tigrea bizi den Asiako gainontzeko hamar herrietako agintariak, neurriak adosteko asmoz.

Asmoa egia bilakatu da, eta herrietako ordezkariak lortu dute hitzarmena:(1)..... Bestelako neurriak ere zehaztu dute: batetik, aurrerantzean, uztailaren 29a Tigreen Munduko Eguna izanen da, eta, bestetik, agintariak adostu dute tarteka aste honetakoaren gisako goi-bilerak egingen dituztela eta(2)..... Dirua da, hain zuzen ere, gako nagusietako bat. Askok aurrerapauso garrantzitsutzat jo dute egin berri den bilera, baina adostutako neurriak martxan jartzeko dirua mahai gainean jartzeko konpromisorik gabe, asmo guztiak hutsean gera daitezkeela azpimarratu dute.

Bileran, 330 milioi dolarreko programa onartu dute parte-hartzaileek.(3)..... Laos eta Butan herrie-

tako ordezkariak, adibidez, onartu dute arazoak izango dituztela adostutakoa bete ahal izateko.

Herri guztiek asmo onak agertu dituzten arren, tigreak ez dira hitzekin salbatuko. Habitataren desagertzea eta isileko ehiza dira, egun, haien arerio nagusiak.(4)..... "Basa faunaren piramidearen gailurrean dagoen harraparia da tigrea; eta, hala ere, desagertzeko zorian da. Horrek erakusten digu gure planetako faunaren egoera zeinen larria den", salatu dute Naturarentzako Munduko Funtseko ordezkariak.

Bada beste datu aipagarri bat: aske 3.200 tigre inguru bizi badira, kopurua anitzez handiagoa da eremu itxietan, denera 15.000-20.000 ingurukoa.(5)..... Haien berezko habitatetik atera, eta bildumazaleentzako altxor preziatu bilakatu dira.

Bizirik, bai eta hilik ere. Tigreen larru marradun ikusgarria 60.000 euroan saltzen da Tibetean eta Errusian. Larruaz gain,(6)..... Indian, Txinan eta Nepalén, besteak beste, medikuntza tradizionalen.

Animalia dotorea, indartsua eta arina tigrea. Ikusgarria. Beltza, berriz, haren oraina, eta are beltzagoa haren etorkizuna,(7).....

Jarri testu zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

- A.- 2022 urterako tigreen kopurua bikoizteko konpromisoa hartu dute.
- B.- tigrea babesteko dirua biltzeko fondoa sortuko dutela.
- C.- haien hezurak eta kaskezurrak ere erabiltzen dira
- D.- haren aldeko neurri eraginkorrak hartzen ez badira, behintzat.
- E.- Zoologikoetan eta zirkuetan ez ezik, mundu osoan badira gizakien esku haien etxeetan bizi diren milaka tigre.
- F.- Duela ehun urte, 100.000tik gora tigre bazen; gaur, 3.200 inguru besterik ez.**
- G.- Negozioa, hala ere, ez da hor bukatzen.
- I.- Bai eta haien harrapakinen desagertzea ere, gizakiaren jardueraren ondorioz.
- H.- Herri guztiek euren ekarpena egiteko aukera izanen ote duten, hala ere, ez dago batere argi.

Aukeratu testu zatiak eta idatzi letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

0.- F	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----